

# HARTU, MOLDATU, SORTU eta PARTEKATU

SEKUENTZIA  
DIDAKTIKOA

## 5 GAKO

### HARTU, MOLDATU, SORTU eta PARTEKATU

**1. Material irekia,  
pertsionalizagarria eta  
berrerabilgarria**

**2. Erabilpen anitzekoa**

**3. Bertsio bereiztuak  
irakasle eta ikasleentzat**

**4. ADE-aren erabilera  
ikasgelan**

**5. Plataforma eta aukera  
aniztasuna**

### **1. Material irekia, pertsonalizagarria eta berrerabilgarria**

Sekuentzia didaktiko bakoitzak artxibo konprimitu bana dauka , ZIP deskargagarri moduan, honako helburu hauekin:

- \* Sekuentzian lantzen diren edukiak pertsonalizatzea.
- \* Proposamenaren edozein atal gehitzea, aldatzea edo ezabatzea.
- \* Sekuentzietako irudiak, materialak eta baliabideak berrerabiltzea.

Sekuentzia honen artxiboa deskargatu eta askatasun osoz aztertzeraz gonbidatzen zaitugu. Lotura honetatikegin dezakezu edo orrialde honetako "Material eskuragarria" atalean.

Materialen egitura eta sarbideari buruz laguntza edo orientabideak behar badituzu ez utzi hurrengolaguntza tutoriala irakurri gabe.

### **2. Erabilpen anitzekoa**

Sekuentzia didaktiko guztiak bi modutan erabil daitezke:

- \* ONLINE: Kontsultak sarearen bidez egitea baimentzen du, prestakuntza plataforma baten bitartez edota esteka edo URL baten bidez.
- \* OFFLINE: ZIP artxibo bat deskonprimitzen uzten du, ordenagailuan bertan lan egiteko, internetera konektatu gabe.

### **3. Bertsio bereiztuak irakasle eta ikasleentzat**

Sekuentzia didaktikoak, zuzentzen zaien taldeei arreta berezia jarriz sortuak izan dira:

- \* Irakasleek: eskura dute ikasleei zuzenduriko lan proposamena aztertzekeo sarbidea, gida didaktikoa eta proposaturiko ariketen erantzun multzoa.
- \* Ikasleek: eskura dute ariketen proposamena ikusteko sarbidea, beraiek praktikan jartzeko erabiliko dituzten materialak eta baliabideak.



# HARTU, MOLDATU, SORTU eta PARTEKATU



## 4. ADE-aren erabilera ikasgelan

Sekuentzia didaktikoak arbel digital elkarreragilearen (ADE) erabilpena sustatzeko diseinatuak izan dira. Horrela, irakasle batek bere ikasgelan zera egin ahal izango du:

1. Sekuentzia bat aztertu eta talde handian aurkezteko edukiak hartu.
2. Landu nahi dituen sekuentziaren edukiak, aurkezpenak, animazioak eta materialak >proiektatu .
3. Praktika berritzaileak aurrera atera progresiboki txertatuz ikasgelako eguneroko lanean.
4. Ariketa interaktiboak, problema multzoak, azterketak, debateak eta talde handiko zuzenketak erraztu.
5. Arbelaren zentzua eta aurkeztutako edukiak indartzekotresna eta funtzionalitate malguak erabili, ikasleen arreta lortzearren.

## 5. Plataforma eta aukera aniztasuna

Sekuentzia didaktiko guztiak online moduan landu daitezke, Moodle edo LAMS bezalako plataformen bitartez, ikasleen jarraipenerako tresnak aprobetxatuz. Sekuentzia hauek Moodle batean erabili nahi baditugu beharrezkoa izango da sekuentzien ZIP-a deskargatzea (ikasleen bertsioa) eta Moodle, blackboard edo antzeko ezaugarriak dituen plataforma batera inportatzea.

Hau egin ahal izateko administradore baimena beharko da, delako plataforma horietan, eta sistemak adieraziko dituen urratsak jarraitu kasuaren arabera (garrantzitsua da edukia nola inportatu azaltzen duten plataformako eskuliburua hartzea hasieratik). Osagarri bezala, LAMS-en inguruko sekuentzia didaktiko bat diseinatu da, plataforma honek eskaintzen dituen tresna eta aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzearren.

Ohartarazi behar da sekuentzia hauek erraz argitaratu eta egoki daitezkeela irakasleen eduki, irizpide eta beharretara. LAMS-en inguruko informazioa zabaltzeko bisita ezazu atal hau: LAMS-en lan egiteko orientabideak.